

Eraldaketa, kolektibotasuna eta ikaskuntza

«Brasilen MSTko kooperatibak laguntzeak lankidetzak, lana eta bizitza ulertzeko nire modua aldatu du.»



Andrea Antón eta Marcio Carvalho Mundukideko langileak, FINAPOP kreditu kooperatibako kideekin batera

Brasilen Mundukideren kooperante gisa hiru urte igaro ostean, Andrea Antón ikaskuntzaz, adiskidetasunez eta bizipenez betetako motxila batekin itzuli da. Lurrik Gabeko Nekazari Langileen Mugimenduko (MST) kooperatibekin egindako lanaz, aurkitutako erronkez eta etapa honetatik daraman guztiaz hitz egin dugu berarekin.

Hiru urte biziak izan dira. Esperientzia hau hiru hitzetan laburtu beharko bazenu, zeintzuk lirateke eta zergatik?

Eraldaketa, kolektibotasuna eta ikaskuntza izango lirateke.

Eraldaketa, bai maila pertsonalean, bai maila kolektiboan. Maila pertsonalean, Brasilen igarotako hiru urte hauetan bizi izan dudak guztiagatik: Mundukideren taldeko kide izanda eta Fortalezan MSTko Ekoizpen arloarekin, eta ondoren São Paulon Finapopekin batera lan egiteko aukera izan dudalako.

Eta maila kolektiboan, Mundukideren eta MSTren artean eraikitzen den interkooperazioagatik, eta elkarlan horrek Brasilen nekazaritza-erreformaren alde lanean ari diren MSTko kooperatiben garapenean eta, ondorioz, nekazari familien bizikaltatea hobetzen duen eraginagatik.

Kolektibotasuna, asko ikasi dudalako ikuspegi komunitarioa izatearen garrantziaz, gaur egungo gizartean nagusitzen den ikuspegi indibidualistaren aurrean.

Ikaskuntza, Brasilen igarotako hiru urte hauetan ikasi, bizi eta hausnartu dudak guztiagatik, eta bereziki MSTrekin batera bizitako esperientzia guztiagatik.

«MSTrekin lan egiteak lankidetzalana ulertzeko nire modua aldatu du.»

Nola gogoratzen duzu Brasilera joatea erabaki zenuen unea? Zerk bultzatu zintuen urrats hori ematera?

Ilusio handiz gogoratzen dut. Gizarte-arloan lan egitea betidanik izan da nire motibazioetako bat. Urteak neramatzan garapenerako lankidetzaren arloan lanean, batez ere proiektuen formulazioan eta kudeaketan. Baina denborarekin galdera asko sortzen zitzaizkidan: nola gauzatzen dira proiektu horiek herrialdeetan, nolakoa da tokiko erakundeekin egiten den lana, eta zeintzuk dira proiektuak gauzatzeko eta aurreikusitako emaitzak lortzeko benetako erronkak.

Brasilen bizitzeko izan nuen beste motibazioetako bat MSTrekin batera lan egitea eta Mundukideren taldeko kide izatea izan zen. Eguneroko ahalegin guztiak zertarako diren ikustea oso aberasgarria izan da niretzat, eta oso pozik sentitzen naiz bizi izan dudak esperientziarekin.

Iritsi zinenean, zerk harritu zintuen gehien herrialdeaz eta lan egingo zenuen testuinguruaz?

Ez nintzen ordura arte inoiz Brasilen egon; beraz, dena berria zen niretzat. Brasilera iritsi nintzenean, ulertu beharreko bi errealitate zeuden. Batetik, Brasil bera: bertako kultura ezagutzea eta brasileko portugesa ikastea, egunerokoan komunikatu ahal izateko. Eta, bestetik, MSTren errealitatea Brasilen. Bi errealitate horiek ezagutzeko aukera izatea benetako pribilegioa izan da.

Egia esan, zaila da gehien harritu nauen gauza bakarra aukeratzea. Brasilen bizi izandako egonaldia etengabeko ikaskuntza eta bizipena izan da. Bat aukeratu beharko banu, MSTren lan egiteko modua nabarmenduko nuke: ikuspegi kolektiboari ematen dioten garrantzia, pertsonen eta kulturaren zaintza, eta interkooperazioa, aurrera egiteko eta garatzen jarraitzeko tresna gisa.



Mundukideko lantaldea Finapopeko kideekin bilera batean

Zein zen zure lana programaren barruan? Nolakoa zen egun arrunt bat zuretzat?

Mundukideren Brasilgo programan finantziario teknikari bezala egin dut lan. Nire lana tokiko zein nazioarteko finantzaketa bilatzea, proposamen

berriak formulatzea eta Brasilen martxan zeuden proiektuen kudeaketa, jarraipena eta justifikazioa egitea izan da. Horrez gain, prozesu horiei lotutako prestakuntzaren bat ere eman dut.

Nire egunerokoa, bai Fortalezan bai São Paulon, nahiko errutinazkoa zen, baina betiere Brasilgo testuinguruan eta MSTko pertsonekin elkarlanean. Lanaren zati handi bat bulegotik egiten nuen, baina Brasilgo hainbat estatutara ere bidaiatu izan dut proiektuen jarraipen hurbilagoa egiteko.

Zuen lanak benetako eragina zuela sentitu zenuen adibide zehatzen bat kontatu diezagukezu?

Lankidetzaren benetako inpaktua epe luzera ikusten da, eta kasu honetan, MSTren eta Mundukideren arteko urte askotako elkarlanaren emaitza da. Harrigarria da urteak daramatzaten nekazariak eta MSTko erakundeek Mundukideri buruz nola hitz egiten duten: oso positiboki baloratzen dute jasotzen duten laguntza eta lortu dituzten emaitzak.

Horren adibide argia da Gizarte Enpresen Kudeaketa Ereduaren ezarpena. Lan egiteko moduan aldaketa bat dakar, eta horrek denbora, prestakuntza eta etengabeko laguntza eskatzen ditu. Hurbileko laguntza hori funtsezkoa da aldaketak benetakoak izan daitezen eta asentamenduetako nekazari familiengana iristeko. Are gehiago, beste kooperatiba batzuek ere gurekin lan egiteko interesa erakutsi izan dute, beste batzuen emaitzak ezagutu ondoren.

«Lankidetzaren benetako inpaktua epe luzera ikusten da.»

Zer ikasi duzu kultura brasildarraz zurekin eraman nahiko zenukeena?

Brasilen bi hiri oso desberdinetan bizitzeko aukera izan dut: Fortalezan eta São Paulon, eta bakoitzak gauza desberdinak erakutsi dizkit.

Fortaleza hiritik bizi erritmoa daramat, positibotasuna eta guk garrantzia handia ematen diegun gauzak erlatibizatze gaitasuna. São Paulotik, berriz, aniztasuna nabarmenduko nuke: hiri oso handia da, kultura aniztasun handiarekin, eta horrek bizitzeko eta ikasteko leku oso aberasgarria bihurtzen du.

Zein izan da aurre egin behar izan diozun erronka pertsonal edo profesional handiena?

Epe luzera, erronka handiena familiatik eta lagunengandik hain urrun bizitzea izan da. Hala ere, horrelako esperientzia orok bezala, urte oso politak izan dira, bizipenez eta ikaskuntzaz beteak. Prozesu bakoitzaren atzean dagoen ahalegina, konpromisoa eta eguneroko borroka ikusteak egiten ari zaren lanaren zentzua ulertzen laguntzen du.

Lankidetzaren edo lan kolektiboa ulertzeko modu berriak aurkitu dituzu urte hauetan?

Bai, noski. Asko ikasi dut kooperatibismoari buruz. Oso interesgarria izan da Euskal Herriko kooperatibismoaren esperientzian oinarritutako eta Brasilgo zein MSTren errealitate egokitutako Gizarte Enpresen Kudeaketa Eredua gertutik ezagutzea. Esperientzia honek lan kolektiboa oso tresna garrantzitsua dela erakutsi dit kooperatibak indartzeko eta elkarrekin aurrera egiten jarraitzeko.

Norbait Mundukideren kooperante izatea pentsatzen ari bada, zer esango zenioke?

Sekulako aukera dela esango nioke. Oso lan aberasgarria izateaz gain, Brasilen eta MSTrekin batera lan egiteak gure errealitatetik eta kulturatik oso ezberdina den errealitate bat ezagutzeko eta lan kolektiboa zein lankidetzaren ulertzeko aukera ematen du. Gainera, profesionalki eta pertsonalki asko ikasten da.

Atzera begira, nola esango zenuke esperientzia honek aldatu zaituela profesional gisa... eta pertsona gisa?

Uste dut, batez ere, gauzak ikusteko moduan aldatu nauela. Bizitzeko dugun moduari eta pertsona eta gizarte gisa nola jokatzeko dugunari buruzko beste ikuspegi bat dut orain. Brasil bezalako herrialde

batean bizitzeak eta MSTrekin batera lan egiteak gauza askoren inguruan hausnartzera eraman nau eta begirada desberdin batekin itzuli naiz.



Mundukide mundu bidezkoago eta solidarioago baten alde lan egiten du, interkooperazioaren eta komunitate zein erakundeen garapenaren bidez.